

GAZTE NAIZ

«Euskera, ire laguna!»

Andima Ibiñagabeitia'ren heriotzaren berri hartu nuen egun berean, eskuetara zitzaidan A. Patxi Altuna'ren ikaspide berria. Eta, gure hizkuntzarentzako bizi izan zan elantxogetarraren hutsunea euskaltzale askoren bihotzean bete eziña izan arren, nerekiro pentsatu nuen: «Hauxe da Andima'k atzerri urrun latz hartan nahi zukean gertakaria: bere sua ez da itzaldtu, eta zuzia esku gazte eta jakintsutara parasa da».

A. P. Altuna'ren liburu berria gogoko izan zait oso. Azaleko irudia, hasteko, arrakasta handi bat da, nere usiez: gaurkotasunez jantzitako hirukote hori aintzindari ona izan zitzaidan. Eta, irakurri aurretik, liburu-barneko marrazkiak ikustean, tinkoago pentsatu nuen: liburu hau arras egokia da.

Zergatik «arras egokia»? Baserritarrekiko itzal osoa izanagatik ere (eta euskaltzaleok areago, hizkuntza biziaren iturria gaur ere baserrian baitago), euskera kaletartu egin behar dugulako. Soziologiariek irakatsi digutenez, gainarako klaseen arabera gero eta txikiagoa izango da nekazarigoa. Baserrit hutsari euskera josi nahia, etorkizunik gabe utzi nahi izateko litzake. Gure hizkuntzaren patua, berriz esan behar da, ez da mendi gaillurretan erabakiko, kale ketsuetako administrazioan eta lantegi zaratatsuetan baizik.

A. Patxi Altuna'k hau ba daki; eta kaletar ikaspide bat prestatu du, gutziz txalogarria. «Idazkolan», «Erosketan», «Karta-etxean», «Antzokian», eta beste. Euskaldun berriak eta nolanaik ikasleak kaletarrak diran ezker, kaletar

ikaspede bat behar zuten; eta ziur nago isitimatuko diotela: oso gai egokiak, oso hizkera zolia, oso joskera jatorra. Ederki, beraz.

Irakaskintza hutsari dagokionez, zail izango zait iritzit bat ematea. Candlin'en bidea oiñarriztat harturik idatzia dan ezker, ikasten laguntzeko ongi neurtua dala suma ditek. Hau, dana dala, euskal irakasleek erantzungo dute hobeki, nik uste, neuk hemen egin dezakedan baiño.

Hizkuntzari berari dagokionez, korapillo zaillak askatu behar izan ditu A. Altuna'k; eta eman dituen soluzioak, noski, ez dira denen gustokoak izango. Batzuk, esate baterako, «garbizale»tzat joko dute liburu: akeita, urrutidazki, antzoki, izperringi, eta abar. Beste batzuk, aldiz, «mordollozale»tzat jotzeko aitzekiak aurkituko dituzte: erregall, kolllare, karta, eta abar. Kaletar hitzegian tradizioak ez-ta, A. Altuna'k eman duen soluzioak merezimentu handiak ditu; eta hau uste ez lukean gure hizkuntzaren gora-beherak gaingiroki baizik ezagutzen ez dituela erakutsiko luke.

Batasunari dagokionez, bestetik, A. Altuna'k gaurko gipuzkera hartu du oiñarri solitzat, eta hau ere ez dute denek onartuko.

A. Patxi Altuna'k, halere, eragozpen guzikiak gaindituz, XX-gn. mendeko euskal ikaspide bat gertatu du. Eta guk, eta euskal ikaslerik gehienek nik uste, txalo jotzen diogu bihotzez, eta hortan geldi ez dedilla eskatzen.

LARRESORO

Erregeeri karta

Agur Meltxor, Gaspar eta Baltasar agurgarriok:

Egun ahuetan kartaz gañezka egongo zeratela badakit. Mundu guzitik, eta izkuntza danetan idatzitakoak. Beraz, nere karta honen eskabideari erantzungo diotzen itxaropenez beterik idazten dizutet.

Barkatu zuegan bildurrez beterik banatorkizute, baiñan ainbeste gauz ditut zuei eskatzeko... Bestalde, beti esan izan didate gauz asko eskatu ezker eta dutela ia ezertxoere ekartzen, norbereki diraneekin artuemanik ez dezutela nahi. Egoistak pobreak diranean orrela gerta oia da.

Ez dizutet beste munduko gauzik eskatuko, ez det ez muñekurik, ez autorik ez loteririk eskatzen ezta jostallurik ere. Pobrea nauzute materi ondasunetan, baiña beste zenbait gauz beharrezkoagoak ditut. Orregatik, zuen erantzun oparotsuen zai gelditzen nauzute.

Lenengo, munduarentzat egizko pakea eskatzen dizutet. Zuzentasunean oiñarriturik, maitasunez egositako pakea. Vietnam ta Israel, Chipre ta Congo pakearen egunsentiak alaitu ditzala. Pakerik eza ain galgarria izanik, arren, ainbeste laterrietan dakusgun sasi-pakea urrundu dezazutela eskatzen dizutet, izan ere txirindularien "doping" baiño pozoi kaltegarriago zaigu. Ustez osasunez ondo eta luzaroko bizitza sumatzen dugun garaian eriotz lazgarria gutaz jabetuko da.

Ekonomi banatuago bat desiatzen dut. Desberdintasun hau bedeinkatzen duan xistima deusezta eta beste mundu zuzen eta egokiago bat izan dezagula.

Eskatzen dizutet, baita ere, personak eduki lezakena-gatik edo pentsatzen duanagatik ez baiña, persona danez, bere nortasunak ala eskatzen dualako, aintzat artu dezagula. Bere pentsakera desberdina dala ta, ez degu lagun urkoa menperatzeko eskubiderik.

Oraindik nere eskabideari asiera ematea besterik ez det

egin. Zuek sortaldekoak izanik geure Europaren alde eskatzen dizutet. Mundu eta Europa obeago bat desiatzen dut. Batasuna maite dut, ez noski estatuak ezarri nahiko ligituken batasuna, herrialdeak aintzat arturik anai bezela Europako maian bilduko gaituan familia baizik...

Eskatzen dizutet egizko askatasuna, nor bere iritziak adierazi eta zabaltzeko, helburu berdiñak eskatzen duan neurrian biltzeko eta alkartzeko egokiera, lagun urkoaren eskubideak errespetatzera beartzen gaituan askatasuna.

Ain beharrezko dugun Unibersidadea eskatu gabe nola gelditu. Baiñan argi ibilli, hemen gure artean ikastola nagusi bat partzea ez da aski, ez dugu nolanaikiko unibersidadea nahi, euskal unibersidade bat baizik. Ta, jakiña, zuek gertatzen danaren berri obetoago dakizute nik baiño, eta zuek konpondu zenezaketan gauza bada, gure irakle ta intelektualak atzeriratu ez ditezten eskatzen dizutet.

Euskaldunori bial eizguzite ain premizkoa dugun doaia, adimenak argituz istoriaren une garratz hunetan gogor ekitoko indarra, gure lana gorrotorik gabe aurrera eramateko kema. Eman eizguzite batasuna, alderdikeriak alde batera utzirik, batasun sakona. Usatu arren gure arteko tributoak beren onerako eta guzian lasaitasunerako. Europa pamilii bezela desiatzen badugu lehendabizi euskaldunag anaiaik gerala eizgizatu beharrean gaude.

Azkenik, etzaitzuet gehiago aspertuarazi nahi, zuek ez baiña, gauz hauek danak geure lanez eskuratu al izateko grazia, eskatutako danentzat garrantzitsuna azkenengo hu dela ez ahaztu.

Agur Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Zuek jendearen zoria maite duzute, poza ta irriparra zabaltzen alegintzen zerate, baiñan guretzat ez da egizko zorionik izanen lengo eskubidea eskuratu bitarte.

Agur bada, eta eskerrik asko.

MIKEL UGALDE

«Funts-gabe zalen

funts-gabetasuna»

Munduari buruz gizonak gera oro modelatzen dugunak. Eta gizonok historian zear mundu ikusmen aunhitz sortu ditugu.

Gizonak ere, zenbait gauz aski zipatu ezker, fite gertzen oitua gaude. Onela egintza bat, esatera bat, beti ba beti lehenbizi gizon batek kontzientzi egina, esana, agertua, gerora beste batek bereganatua ta areago beste batek erabilia, azkenik betikortasun maillan eta gizonaren esenziko lez biurtzen da, talde bat danean berau onartu ta bizi duana.

Molde honetan ere, gizonok agintza bat, esatera bat, oituran eta usantzan billakatzea alleatzen gera.

Historian zear, mundu ikusmen, beltz eta zuri, illun eta argi, erdizkakoak ere falta gabe, aunhitz eman dira. Hala ere, gehienik, luzehenik jabetu dana, mundu ikusmen beltza izandu da. Ez da arritzekoal!

Bizitza hala aurrekoena, hala gurea (ta ondorengoena ere hala intuizen dugu une aluz beteago datza zoriontsuz bainan.

Egi da ere, honi buruz, historiako termometroak beti ez duala neurri berdiña markatzen eta gohora-behera haundiak oi dirala.

Guri tokatu zaigun aroa arras beltza da, ots, pairatzea besterik, ideatan ere, bizi ez duguna. Mesianismo berri baten frutu?

Idazle asko dira gure egunetan gizonaren funts-gabetasunaz mintzatu diranak. Eta ain funts-gabe sentitu dira, beste gizaki batzuegaitik, beste funts-gabe izanen diran batzuegaitik, alegia, beren funts-gabetasuna opaltzea, guda ta ixkanbil-pean leartzea, oiugiten dute. Bainan, funts-gabe izanik, zergaitik gizonari jomuga ipiñi? Zergaitik mundua aurrera bidean errespetatu? Zergaitik aurrerapena maitatu? Funts-gabetasuna funts-gabeak menperatu? Senaren aurkako dan zerbait predikatu?

Funts-gabe bagera, etzagula ondorio bat sortu, etzagula beste funts-geberik ekarri, hil gaitzen, bukatu betirakol Bainan, ezi!

Hemen datza funts-gabetasuna, ots funts-gabe dens, aurrera begira, zerbait hobea baten ametsean bizi dan lez agertzen da. Izan ere, funts-gabeak, funts-gabetasuna bukatu nahi balu, ez litzake funts-gabe, ba, lojiko bailitza. Eta funts-gabeak ez du lojika biderik jarraitzen, oposizionala baizik.

Are gehiago hemen dator funts-gabetasuna. Ba, batetik funts-gabetasuna aitortzen duan harentzat, aurrera begira, hobea bat maitatuaz jokatzeak ez du sentidurik, hori lojiko dalarik. Eta bestetik dan funts-gabeakin bukatzea ere, joera lojiko litzake funts-gabe dan harentzat.

Hauk horrela, munduari buruz errespetagarri dan lasto ekintza ensaiatzen dira. Funts-gabetasuna bizitz egin dute. Eta bizitz dalarik sentidu dun. Funts-gabe ideatik bizitz funts-gabera igaro dira.

Bainan, beste guztieri beren buruak idolotzat inposatu nahia, zer? Funts-gabeak jaunduko ahal dira? Gizonok dugu erantzuna. Munduaren ikusmena gizonak sortzen dugu. Zer nahi dugu? Ba ahal gozatz?

JOKIN APALATEGI